



Juana Bizkarra

Arte eszenikoen sormena bultzatzeko I. egonaldia
I. Residencia de creación de las artes escénicas



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu



Getxoko Kultur Etxeak arte eszenikoak sortzeko lehen egonaldi-beka deitu du konpainia profesional, sendotu eta sortu berrientzat, JUANABIZKARRA izenekoa, getxotar askoren seme-alabak hezi eta hazi zituzten bertoko ume-zaintzaile getxotarren omenez. Egonaldiaren zenbatekoa 10.000 euro izango da, eta antzezlan bat, koreografikoa, eszenikoa edo performatiboa, ekoitzi eta muntatzeko erabili ahal izango da.

Egonaldian, konpainiak berak aurkeztutako bitartekaritza-plana aurrera eraman beharko du, eta gutxienez, 3 topaketa egingo dira Getxoko herritarrekin edo bertako kolektibo jakin batzuekin.

Aukeratutako antzezlanak ekoitzi eta muntatzeko eta bitartekaritza-plana gauzatzeko epea 4 astekoa izango da. Egonaldia Muxikebarri Arte, Kultura eta Kongresu Zentroan izango da eta aurre-estrenaldiko bi emanaldi eta obraren entsegu orokor ireki batekin amaitu behar du 2021eko urrian.

Helburuak:

JUANA BIZKARRA arte eszenikoen sorkuntzarako egoitzak euskal kultura-sektoreari lagundu nahi dio, antzerki-, koreografia-, eszena-lanak edo lan performatiboak ekoizteko eta muntatzeko bere espazioa, baliabideak eta diru-hornidura erraztuz, eta, aldi berean, sormen-prozesua Getxoko herritarrei hurbildu nahi die, kulturako ezagutza, esperientzia eta parte-hartzea hobetzeko.

Programa honen bidez, honako hauek bultzatzen dira:

- Euskal ekoizpen eszenikoa.
- Eremu eszenikorako bitartekaritza programak egitea.
- Arte eszenikoetako konpainia profesionalen eta tokiko kultura sektorearen arteko interakzioa, bereziki arte eszenikoei lotutakoa.

Hartzaileak:

Arte eszenikoen barruan lan egiten duen edozein pertsona juridikok jaso ahal izango du beka, antzezlanak, koreografikoak, eszenikoak edo performatiboak muntatuz, hala nola, antzerki-, dantza-, txotxongilo- eta zirku-konpainiak.

Dokumentazioa:

Beka jaso ahal izateko, konpainia eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan:

- Eskabidea (1. eranskina)
- Bitartekaritza plana (2. eranskina)
- Aurrekontua (3. eranskina)
- Dokumentazio osagarria:
 - Obraren txostena (gutxienez obraren sinopsia, talde artistikoaren deskribapena eta eszenografia izan behar ditu.).
 - Obraren fitxa teknikoa.
 - Konpainiaren eta obrako partaideen curriculumak.
 - Obraren irudi adierazgarria.
 - Egonaldia eskatzeko motibazio gutuna.
 - Egonaldiaren aurretik eta ondoren aurreikusitako lan-egutegia.
 - Aldez aurretik jasotako kolaborazioak edo laguntzak.
 - Aurreko lanetako bideoen estekak.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria.

Eranskin guztiak web gune honetan daude eskuragarri:

www.getxo.eus



Aurkezpena:

- Eskaera telematikoa www.getxo.eus webgunean.

Aurkezteko epea:

Hilabete, BAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Informazio gehiago:

- www.getxo.eus/juanabizkarra
- programazioa@getxo.eus



Informazio
gehiago



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu

